

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS


Kulturak 52 udalerritako 483 ekintza eszeniko eta musikal finantzatu ditu

2015ean zehar 1,26 milioi euro erabiliko ditu talde eta erakunde artistikoen proiektuak babesteko

Miércoles, 17 de junio de 2015

Nafarroako Gobernuak 52 udalerritako 483 ekintza eszeniko eta musikal finantzatu ditu aurten. Horretarako, 1,26 milioi euroko partida gorde du.

Ekintza horiekin hiru programa sortuko dira: haur eta familiako programa bat, Iruñerako programa artistiko bat eta Nafarroako hainbat udalerritarako programa artistikoa. Hilero eskaintza www.culturana Navarra.es webgunean kontsultatu ahalko da.



Haur eta familiako programa haurrentzako antzerki eta operako 71 ekimenek osatzen dute, eta Iruñean nahiz beste udalerrri nafar batzuetan egingo dira. Hiriburuko gune eszenikoetan antzerki, genero liriko, musika klasiko eta abesbatza-musikaren 212 emanaldi izango dira. Bestalde, Nafarroako udalerrien programa artistikoak antzerki, herri-musika, abesbatza-musika eta genero lirikoko kontzertuak eskainiko ditu hainbat udalerritan, urteko hilabeteak ere betez.

Iruñean, emanaldiak honako leku hauetan antolatu dira: Baluarte Auditoriuma, Gazteria Etxea, Miserikordia Etxea, Katedrala, Civican, Civiox (Kondestable, Iturrama eta Mendillorri), Nafarroako Antzerki Eskola, Nafarroako museoa, lehengo autobus-geltokia, lehengo Kasinoa, ospitaleak, Nafarroako Unibertsitatea museoko auditorium berria eta Gayarre antzokia.

Nafarroako beste udalerrri batzuetako emanaldien programa ondorengo tokietako kultur etxeetan egingo da: Ablitas, Altsasu, Antsoain, Artika, Barañáin, Bera, Burlata, Caparroso, Cascante, Castejon, Cintruenigo, Zizur Txikia, Corella, Elizondo, Lizarra, Etxarri-Aranatz, Galar, Huarte, Irurtzun, Lesaka, Los Arcos, Lodosa, Martzilla, Murchante, Mutiloa (Arangurengo ibarra), Noáin, Olazti, Orkoién, Azkoién, Ribaforada, San Adrian, Zangoza, Tafalla, Valtierra, Viana, Atarrabia eta Zizur Nagusia.

Ondorengo lekuetako elizetan ere izango dira emanaldiak: Arazuri, Bera, Elizondo, Etxarri-Aranatz, Galipentzu, Huarte, Lakuntza, Larraga, Leitza, Lerín, Erriberri, Gares, Tutereta eta Zizur Nagusian, besteak beste, bai eta Leireko abadian ere. Antsoain eta Tuterako Gaztambide antzokietara helduko dira, eta hainbat agertoki erabiliko dituzte Allo, Andosilla, Azagra BHI, Carcar, Deikaztelu eta Faltzesen.

Eskaintza honekin, adin guztietako jendearengana iritsi nahi da, kulturarako sarbide zaila duen jendearengan arreta berezia jarritz egindako ekintzak barnean hartuz. Jendea prestatzeko ekintzak ere egingo dira zenbait ikastetxetan, esaterako: Jesusen Bihotza, Miravalles, Nuestra señora del Huerto, Liceo Maonjardin edo San Fermin ikastola.

Aurreikusitako kultur ekintzak

Iruñeko Ganbera Abesbatzak eskainiko dituen ekintzen artean, *San Nicolas* izeneko Eguberrietako kontzertu bat emango du, Iruñeko San Nikolas elizan eta Gayarre antzokian entzun ahal izango den kantata. AGAOk, berriz, opera bat baino gehiago proposatzen du aurtengorako, *Don Pasquale* adibidez; opera hori Gayarre antzokian entzun ahal izango da, eta *Rigoletto*, berriz, Baluartean.

Antzerki Amateurreko Federazioak bere *IV Muestra* aurkeztuko du, hogeitazikloekin beste hainbat udalerritan. Nafarroako Antzerki Eskolak ohiko zikloak programatu ditu (*Festa, Festín, edo Golfos*), eta familiari zuzendutako ekoizpen bat artista berriekin; haren izenburua haurrentzako XXIV. Antzerki Testuen Lehiaketatik aterako da.

Nafarroako Abesbatzen Federazioak Eslavaren *Miserere* eskainiko du aurten, *2. Estatuko Abesbatzen Topaketa, Nazioarteko Abesbatzen Zikloa* eta *Nafarroako Abesbatzen Zikloa*.

Nafarroako Ganbera Abesbatzak *Encantandoren* beste edizio bat aurkeztuko du, *Diabolus in Música* kontzertu aipagarriarekin; eta Nafarroako Ganberako Operak Piccola Operaren beste sasoi bat prestatu du, *Hamelingo faulta-jotzailea* ekoizpen berria izanik. NAPAEk, berriz, jende guztiarentzako emanaldiak eskaintzen ditu, eta baita klasikoak ere, La Nave Teatrotan *El pleito de Areúsa*, adibidez.

Nueva Babel elkarteak musika-antzerkia ekarriko digu, Zangozan eta Tuteran *Flauta magikoa* obrarekin, besteak beste, edo Gaztambideren *Casado y soltero* zartzuelarekin; Diego Gomez musika-elkarteak Larragara eramango du abuztuan *VIII. Organo Zikloa*; bertan, Espainiako bi organo-jotzaileekin gozatu ahalko da: Roberto Freso y José Enrique Ayarrarekin.

Gainera, San Benitoko Ordenak kantu gregaorianoko kontzertuak proposatzen ditu, bai eta organo-musikakoak ere Leireko abadian; Sinfonietta Académica gazte-elkarteak, berriz, kontzertu sinfonikoak eta abesbatzenak eramango ditu Corella, Leitza eta Lekunberrira, besteak beste, Granados eta Albenizen obrak sartzen dituen *Fiesta* programarekin, esaterako.

Nafarroako Dantzarien Biltzarrak adin askotako dantzarien jaialdiak sustatuko ditu, bai eta makiladantzaren jaialdia ere; eta Nafarroako Musika eta Arte Eszenikoen Foroak *Bohemios* zartzuela espainiarra antzeztuko du, beste emanaldi batzuen artean, eta obra horretan soka eta pianoaren laguntzaz kantatuko da.

Deialdia

Kultur ekintza horiek guztiak Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako Departamentuak berriki ebatzitako deialdiaren emaitza da (konkurrentzia librean), Nafarroako erakunde eta talde artistikoen arte eszeniko eta musikalen proiektuei laguntzeko. 1.260.000 euroko aurrekontua dago, eta 2015etako eskaintza artistiko bat babestea du xede, kalitate, dibertsitate eta jendearentzako interesean oinarrituta.

Deialdiak aurrekontua bi mailatan banatzen du: 45.000 eurotik gorako proiektuak, eta zifra horren azpitik daudenak. Lehengoetarako 1.134.000 € daude, eta bigarrengoetarako, 126.000 €.



Iruñeko Orfeoia eta Sinfonietta Académica.

Parte hartuko duten Nafarroako talde eta erakundeak honako hauek dira:

Musikan: "Amigos de la Ópera" Gayarre elkarteak, Iruñeko Ganbera Abesbatza, Nafarroako Ganberako Opera, Nafarroako Abesbatzen Federazioa, Nafarroako Ganberako Abesbatza, "Nueva Babel" Elkarteak, "Diego Gomez" musika-elkarteak, Sinfonietta Académica

Antzerkian: Almadía, Aquí hay madera, As de T, Auzoa Teatro, Bubulú, Chapalangarra, Humo kolektiboa, Complexus, Defines, El Bardo, Nafarroako Antzerki Eskola, Gabalzeka Teatro, Gat, Resa antzerki-taldea, Había Teatro, Hoidek, Incierto Troupe-Kromlech, Jacarandá Teatro, Juslarotxa, Karretabidea, Kilkarrak, La Trapera, Ligli Troupe, Puntido Teatro, Ilusiona, Teatralis, Teatro Talo, Trapalán eta Zarrapastra..

Dantzan, Nafarroako Dantzarien Biltzarrak parte hartzen du.

Diru-kopuruak

Konkurrentzia publikoko deialdira 36 proiektu artistiko aurkeztu ziren, 10 aurrekontu handieneko mailan eta 26 aurrekontu txikienean. Haietatik, 14 erakunde artistikok diru-laguntza lortu dute.

Horrenbestez, deialdiaren emaitza honako hau izan da:

Lehen taldean (45.000 eurotik gora), laguntzak lortu dituzte: Iruñeko Ganberako Abesbatzak (131.835,90 €); "Amigos de la Ópera" Gayarre elkarteak (252.000 €); Nafarroako Amateur Antzerkiko Federazioak (66.532 €); "El Colectivo" Nafarroako Antzerki Eskolak (252.000 €); Nafarroako Abesbatzen Federazioak (135.000 €); Nafarroako Ganberako Abesbatzak (97.089 €); Nafarroako Ganberako Opera elkarteak (180.839,28 €) eta Nafarroako Arte Eszenikoen Profesionalen elkarteak (18.703,27 €).

Bigarren taldean (45.000 eurotik behera): Nueva Babel elkarteak (24.710 €), Diego Gomez musika-elkarteak (2.987,92 €); San Benitoko Ordenak (23.749 €); Sinfonietta Académica gazte-elkarteak (24.809,69 €); Nafarroako Dantzarien Biltzarrak (24.750 €) eta Nafarroako Musika eta Arte Eszenikoen Foroak (24.740 €).

Laguntza horien ebazpenari esker, erakunde onuradunak garatu egin ahalko dira, eta jendearen prestakuntza eta gozamenari begira hainbat diziplinatako jardueren programak abian jarri ahalko dira. Programazio horiek Nafarroako Gobernuak gartzen dituen programa propioei gehitzen zaizkie; hala, eskaintza artistiko eta kulturala zabaltzen da.